

Joxan Ormazabal eta itzulpengintza

J. M. OLAIZOLA LAZKANO "TXILIKU"

1

Joan da Joxan gure artetik, eta norbait joaten zaigunean badirudi ezinbestekoa dela haren aipamenak eta gorantzak egitea, are gehiago Joxanen kasuan bezala heriotzak hain kutsu tragikoa utzi duenean.

Hala ere, oraingoan ez dago aitzakia beharrik, ezta arakatze luzeetan ibili beharrik Ormazabalen eta itzulpengintzaren arteko loturak aurkitzeko.

Hark itzulpengintzan egindako lanei begiratzen hasi naizenean ikusi dut laurehun (400) liburu eta liburuxkatik gora dituela itzuliak edo moldatuak, era eta tamaina guztietakoak.

Lan itzela.

Gainera, itzulpen horien arrastoari jarraitzen badiogu, haur eta gazteen literatura itzuliak Euskal Herrian egindako bidearen aztarnak erraz suma genitzake.

Haur eta gazteentzat egindako literatura asko aldatu da azkeneko hogeita hamar

urteetan, eta Joxanek itzultitako liburuek erakutsiko digute, neurri batean, nola joan den bideratzen aldaketa hori, itzulpenari dagokionez behintzat.

Abia gaitezen.

Hasteko, gogora dezagun aurreko mendeko hirurogeiko hamarkadan euskararen munduak zuen inguru agorra. Euskaraz zegoen materiala (ikasteko, irakurtzeko, ikusteko...) zeharo urria zen. Gabezia horrek bultzatuta, ordea, hainbat euskaltzalek gogor ekin zion lanari: "ez badago, egin egin behar da" zioen belaunaldiko jendea zen.

Irakurtzeko libururik ez bazegoen, idatzi egin behar ziren; ikaslibururik ez bazegoen, egin edo itzuli.

Esate baterako, euskarazko testurik ez zegoenez, itzuli egin behar ziren, eta dena itzultzea lan handia zenez, banatu egiten zen itzulpen-lana: hainbat orri ikastola bakoitzeko, adibidez. Hau da, ikasliburua ata-

letan zatikatzen zen, eta ikastola bakoitzak zegokion atala itzuli behar izaten zuen, gero atal guztiak bildu, begiratu bat eman eta testua horrela edo hala, multikopista zahar batean bazen ere, argitaratu eta erabiltzeko. Ez da, jakina, liburu baten itzulpena egiteko modurik egokiena, beharbada, baina egin beharra zegoen eta egin egiten zen.

Horrelako lanetan egingo zituen, seguru asko, lehenengo itzulpenak Joxan Ormazabalak, testu horien itzultze-lanetan aritu baitzen ikasliburu berriak sortzen hasi aurretik (Joxanen beste *ofizio* bat, aspaldikoa baina ahaztezina: ikasmaterial sortzailea).

Bueno, kontua da ezak ekartzen duen eduki nahiaren antsia horretan, euskalgintza hainbat gauza egiten hasi zela: euskara ikasteko eta irakasteko metodoak, ikastoletarako liburuak, irakurtzekoak... eta ia saltsa horietan guztietan ibili zen Ormazabal.

Halako garaiak ziren, eta halako jokae-rak, baina “geu” izan beharrak gauzak urrutiegira eramane zituen zenbaitetan. Itzulpenari buruz, esaterako, bazen begi okerre-zikustuen zuenik ere. Esan nahi da, predikua gisa honetakoa zela: geuk egin behar ditugu liburuak, geuk geure ikuspegi propio-tik eginak, eta behar-beharrezkoa den hori soilik itzuli. Ikuspegi horrek indar handiz bultzatu zuen “geurea” goratzea eta itzulpena beharrezkoa.

Bide horrek alde on bat edo beste bazuen, eta, neurri batean, horrelako ikuspegiak bultzatu zuen ahozko euskal literaturaren altxorrak (bildumetan idatzita zeudenak, batik bat, egia esan behar bada) arakatu eta hango ipuinak berritzea eta moldatzea. Joxani zuzenean dagokionez, aipatzekoak dira **Axut** sailean (Elkar argitaletxea) 81. urtean

moldatutako *Lau anaia umezurtz* ipuina, 83. urteko *Martixio asmatzaile* eta 85.eko *Otsoa eta azeria* eta *Zakurra, katua...*

Axut sailean herri-ipuinak eta kondairak biltzen ziren, kolorezko marrazkiekin, azal mehe eta gogorarekin eta garaiko euskarazko haur eta gazteen literaturarako ezohikoa zen luxuarekin.

Lan horiek, itzulpenak baino gehiago moldaketak direnak, goian aipatutako giro horretan koka daitezke, 81. urtean Joxanek idatzitako *Pernando Amezketarra* bera bezalatsu.

Autarkiaren teoriak teoria, etxe-koek egindakoak ez zuen, ordea, asetzen euskal munduak orduan eskatzen zuena, eta itzulpenen beharra berehala egin zen nabarmen: irakurtzeko, zegoena baino material gehiago behar zen; ikasteko, zer esanik ez. Hori garbi zegoen.

Franco hil (1975) eta ondorengo doze-na erdi bat urtean asko ugaritu ziren liburu itzuliak. Liburu itzulien *sailak* sortu zituzten argitaletxeek:

1974an Cinsa hasi zen zenbait libururekin (Sandokanen istorioak barne).

1976an Gero-Mensajero **Kimu** saila osatzen hasi zen.

1979an Hordagok **Tximista** saila eta Elkarrek **Itzul** saila sortu zituzten.

1981ean Elkarrek **Bostak** saila hasi zuen.

...

Sail berri horien guztien hasieran baze-goen itzultzaileen eta irakasleen arteko nola-baiteko lotura sendoa. Itzultzaileak, askotan, irakasleak berak ziren, euskaraz edo euskara irakasten zutenak, beharra sumatzen zutenak eta itzulpenak egin egiten zituztenak.

Sail berri horietatik Ormazabalek **Bostak** eta **Itzul** sailekin izan zuen zerikusi zuzena.

Bostak sailean edizio-lana egin zuen. Sail osoan nabarmena da garaiko profesionalizatu gabeko itzultzailearen irudia, material beharrak lan egitera bultzatzen zuen jendearen arrastoa, itzultzaile gehienak irakasleak baitziren.

Itzul sailaren hasieran Joxanen itzultzaile-lana begi-bistakoa da, hiru liburu berak itzuliak baitira: *Ketxusen zooa*, *Norena da basoa?* eta *Jolas egiteko ipuinak*.

Hiru liburu horietan ikus daitekeenez, Joxanen itzulpenek bazuten helburu garbia: hizkera naturala izango zuten liburuak nahi zituen. Izan ere, bazen behin baino gehiagotan aipatzen zuen euskara mota bat berak itzulpenetan nahi ez zuena: *euskara ortopedikoa*. Sintaxiaren, morfologiaren eta arauen aldetik *zuzen* zegoen euskarari deitzen zion horrela, euskara zuzena baina arimarik gabekoa, komunikatzeko hotza, adierazkortasun gutxikoa, goxotasunik ez zuena. Joxanek ez zuen nahi horrelako *euskara ortopedikorik* itzulpenetan.

2

Euskarazko liburugintza itzulpenera zabaldu zen garaian (eta lehenagotik ere bai zenbait kasutan), Espainian frankismo garaian zokoratuak egondako hizkuntzen berpizte nahia nabarmena egin zen, batez ere katalanarena. Elkartzea eta elkarrekin lan egitea helburu bilakatu zen. 1974. urtetik aurrera La Galera (argitaletxe katalana) hasia zegoen euskaraz **Apurrak** saileko liburuxkak argitaratzen. Formatu txikiko koadernoak ziren, koloretan, ume txikiak irakurtzen lehen urratsak egiteko. 1980.

urtetik aurrera Elkar argitaletxearekin koedizioan argitaratu ziren Joxanek itzulita edo moldatuta.

Bestalde, frankismoaren ondorengo urteetan pedagogia munduarekin lotutako hainbat gai eztabaidatzen ziren: irakurketa-metodoak, irakurgaiak zenbait interesguzen inguruan lantzea, ezagutza esanguratsuak bihurtzea... Horrek guztiak sortutako aldaketak ordura artekoak ez bezalako liburu motak sortu beharra ekarri zuen. Esaterako, 1979. urtean hasi zen **Teo** saila. Liburu horietan Teo da pertsonaia nagusia eta liburu bakoitzean interesgune bat (kanpina, azoka, oporrak, parkea, igerilekua...) da liburuaren bizkarrezurra. Joxan Ormazabalek lotura handia izan zuen **Teo** sailarekin, eta 1983. urtetik hasi eta 2000. urtera arte hogeita lau liburu itzuli zituen.

Horrek ez du esan nahi, dena dela, betiko ipuin herrikoien garaia erabat pasatua zenik. La Galerarekin egindako elkarlanean **La Galera ipuinak** saila dago. Bilduma horretarako, *Lehoia eta kilkerra*, *Usoa eta inurria* eta *Belea eta azeria* ipuinen itzulpenak Joxanek egin zituen.

Kutsu berriagoko liburuetara itzuliz, **Teo** sailaren antzekoa da **Ibai** saila. Beste ikuspegi batetik, baina egitura bertsuarekin **Ibai** sailak, argumentu-egitura simple baten bidez, ofizio, lanbide edo afizio bat aurkezten digu liburu bakoitzean. 1983. urtetik 1993. urtea bitartean, **Ibai** saileko hogeita lau liburu itzuli zituen Joxanek.

1983. urtearen inguruan gabiltzanez, bitxikeria bat.

Urte horretan itzuli zuen Joxanek Eduardo Galeanoren *La piedra que arde* (*Harria sutan*).

Joxanek bereziki maite zuen liburua zen, eta Galeanoren liburua asko gustatzen zitzaiolako itzuli zuen, ordura arte esku artean zituen sailetatik kanpo geratzen zen liburua izanik ere. Kartoizko azalarekin eta koloretan egina, garaiko ohiko austeritatetik aparteko liburua da (ia luxuzkoa orduan).

Jendeak ez zion berak nahiko zukeen harrera egin. Liburuak sailen barruan atera behar zirela esan ohi zuen ondoren...

1983 urte horretan bertan, indarrak batze aldera, Galaxia argitaletxe galiziarrek, La Galera katalanak eta Elkarrek beste sail bat sortu zuten, hiru hizkuntzetan batera argitaratzeko, eta beste zenbaitetara zabalatzeko asmoarekin (Arango okzitanieraz ere argitaratu ziren zenbait liburu). Sailak **Txalupa** izena zuen (euskaraz, behintzat) eta 1992. urtera arte jarraitu zuen liburu berriak sortzen. Joxanek itzuli zituen kanpotik zetozen liburuak euskarara. Haur txiki-kientzako liburuak zirenez, eskatzen zuten euskara goxoan egin zituen, betiere. Hogeita hamazazpi liburu izan ziren denera.

Urte berekoa da, baita ere, **Perkax** saila. Sail horretan edizio-lanetan aritu zen Ormazabal, euskaraz sortutako liburuentzako saila baita. Hala ere, badu Joxanek sail horretarako itzulpen bat egina: Seve Callejaren *Bakarnek ez du lagunik*.

Joxanek lagun ugari zituen, eta gustatzen zitzaion haiei mesedeak egitea...

3

Aireak leku askotatik jotzen du hogeita hamar urtean, eta ezin izan beste era batera 1980tik 2010 bitarteko hogeita hamarretan ere. Esan nahi da, eragin eta eragile asko ibili izan zirela liburuen inguruan urte horietan;

era askotako eragileak (ikuskizunak, komikiak, telebista, zinema...), eta argitaletxe batean edizio eta itzulpengintzan zebilenak erantzun egin behar ziren halako eragileei. Aldizkako fenomenoak izango ziren, agian, baina modan zeuden bitartean erantzuna eman beharrekoak. Hemen Joxan Ormazabalek itzultako adibide batzuk:

Babar saila, 3 liburu itzuliak.

Charlie Rivel saila, 6 liburu. Charlie Rivel pailazoaren pertsonaia eta irudia Kataluniatik etorritakoak ziren.

Lucky Luke saila, 5 koaderno. Komikietatik marrazki bizidunetara eta marrazkietatik berriz liburuetara etorritako pertsonaiaren fenomenoak.

Lulu txikia saila, 12 liburuxka; hau ere telebistako marrazkietatik etorria.

Komikien itzulpenak egiten oso goiz hasi zen Joxan. Imanol Tapiarekin batera **Tintin** sailaren itzulpen- eta edizio-lanak egiten aritu zen. Bien artean itzultakoak dira *Urrezko hagindun karramarroa*, *Ikatz stocka* eta *Castafioriren bitxiak*.

Haur eta gazte literaturaren inguruan urteetan zehar jotako haizeez ari garenez, ezin utzi aipatu gabe noizbehinka sortzen diren haize-zurrunbilo bihurriak, unean uneko modak, tiradizo handiko memento-kontuak. Esaterako, *liburu interaktibo* deituek arrakasta itzela izan zuten garaitxo batean (interaktibitatea sarean bazela jakiteak ekarritakoa, agian?). Kontua da 85-86 inguru horretan munduko aurkikuntza handiena balira bezala aurkeztu zizkigutela liburu interaktiboak, sortzaileak emandako eta irakurleak egindako aukeren bitartez *eraikitzen* joaten zirenak. "Aukera ezazu zeure abentura" moduko liburuak ziren, eta

norberak argumentua bideratzeko aukeraxo bat ematen zuten.

Txikientzat ere iritsi ziren horrelakoak. Timun Mas argitaletxearekin batera, era horretako hainbat liburu editatu zituen Elkarrek. **Globo Berdea** izena zuen sailak eta 86 eta 88 bitartean hamabi liburu itzuli zituen Joxanek.

Liburu interaktiboak bezain nabarmenak izan ez baziren ere, geroztik etorri ziren beste zurrumbilo batzuk. Horien artean aipatu beharrekoa da XX. mendea amaitzekotan zegoela beldur eta izuzko kontakizunak izan zuten arrakasta. Tarttalo argitaletxearekin **Ipuin beldurgarriak** saileko bi liburu itzuli zituen Joxanek.

4

Modek sortutako liburuei eskainitako parentesi hori itxita, itzul gaitzezen 1987. urte aldera. Garai hartan, La Galera eta Elkarrek sail berri bat hasi zuten, **Sirena**. Haur txikiei zuzendutako saila zen, eta 1992. urtera bitartean hogeita hamalau liburu sortu zituen. Katalanek lehenagotik zuten bilduma bat zen, eta Joxanek egin zituen liburu guztien itzulpenak.

Antzeko zerbait esan daiteke Timun Mas argitaletxearekin koedizioan egindako **Xanti eta Ane** (1988-89) eta **Kiriko** sailekin (1988-1997). Itzulpenak Joxanek egin zituen.

Xanti eta Ane saila, hamabi liburu eta sei osagarri.

Kiriko saila, hogeita bi liburu eta hiru osagarri.

1989. urtekoak dira **OT aztia** eta **Parramon** sailak. **OT aztia** saila 1989 eta 1995 urteen artean argitaratu zen eta saileko sei

liburuak Joxanek itzuli zituen. Oraintsu (2009. urteko amaiera) berritzen ari zen sail hori.

OT aztiak Joxani hainbeste gustatzen zitzaion ukitu poetiko-surrealista zuen, Josep Lluís Martínez Picanyol egile eta marrazkilariak irudi sinple eta garbiz apaindua.

Bestelakoa zen **Parramon** saila.

Hainbat gauza era apalean, sinplean, haurrei erakustea eta irakastea zen liburuxka horien helburua. Alde horretatik, arlo horretako liburuen artean jorratzen den beste ikuspuntu bat zuten: ezagutzazko liburuak haur eta gazteentzat.

Parramon saileko hamasei liburu Joxanek itzuli zituen.

Ezagutzazko liburuxka horiek oso maiteak zituen Joxanek, baina baita eskulanetakoak ere. Horrela, 1990. urtean, **Nire eskulanak** sailean argitaratzeko hamar liburu itzuli zituen.

Eskulan-liburuen garai bertsukoa da **Oihaneko historiak** saila (beste bost liburu) eta **Dortokaren liburuak** saila (hamar liburu).

Ez da erraza jakiten zenbat liburu itzuli zituen Joxan Ormazabalek garai horretan. Behin baino gehiagotan esan zuen hainbat liburutzotan ez zuela itzultzailearen izenik jarri (berea, alegia), hango lanak ez zuelako itzulpen izena merezi...

5

Itzul saileko liburuak ez ziren liburu-
txoak, testu dezente zuten liburuak baino. 1992. urtean eman zitzaion amaiera sailari. Handik gutxira, bildumako zenbait liburu jasotzen hasi zen **Xaguxar** sail berria.

Sail horrek euskaraz sortutako liburu asko zituen, **Itzul** sailetik jasotako beste batzuk eta, gainera, zenbait itzulpen berri. Ormazabalek kariño handiz egin zituen horietako batzuk: *Amona sagar gainean*, *Pippi itsasora-ko asmotan*, *Pippi hegoaldeko itsasoetan*, *Deabrua gorputzean* eta *Katuaren irribarrea*.

1996. urtean argitaratu zuen Elkarrek, La Galerarekin koedizioan, umeentzako hainbat ipuin klasiko, marrazkilari ausarten irudiekin, kartoizko azaleko liburu dotoretan eta estetika berritzailearekin egindako beste sail bat: **Betiko ipuinak**. *Katu botaduna*, *Epotx saltaria*, *Berunezko soldadutxoa*, *Azeria eta zikoina*, *Bremengo musikariak*, *Mari Errauskin*, *Hamelingo txirularia*, *Basoko loti ederra*, *Ali Baba eta berrogei lapurrak*, *Aladino eta kriseilu mirezgarria*, *Ahatetxo itsusia*, *Edurnezuri*. Itzulpenak Joxanek egin zituen, jakina.

Urte berean, Joxanek asko maite zuen gai baten inguruan (animaliak eta haien bizitza) **Lau urtaroak** sailean hainbat liburu itzuli zuen (2001. urtea bitartean hamasei liburu). Gai bera dute Tarttalok 1995. urtean argitaratutako **Animalia bitxiak** sailak (lau liburu) eta 1996ko **Animaliatxoak** (zortzi itzulpen).

Ume txikientzako liburuak dira, aldiz, Tarttaloko **Ipuin klasiko trokelatuak** (zortzi liburuxka), eta baita **Margotu eta erantsi** sailekoak ere (jolaserako osagarriak, sei koaderno).

6

Haur eta gazteen literaturak arrakasta garrantzitsua izan duela diote (azken urteetako literatura mota horren *booma* aipatu ohi da), baina oraindik ere euskaraz eginda-

ko haur eta gazte literaturaz bizi ahal izatea gauza zaila da, batez ere tituluak ugaritu eta tiradak jaitsi direnetik. Bestalde, behin eta berriz errepikatu izan da eremu urriko zenbait hizkuntza elkartuz gero gauzak erraztu eta aukerak handitu egingo liratekeela.

Indarrak eta argitaletxeak elkartu direnean, ordea, emaitzak ez dira espero adinakoak izan, seguru asko eremu bakoitzean hiztunek badutelako bere unibertso propio txikia, kanpotik datozen eraginetatik babesteko eraikia eta automatikoki funtzionatzen duena, kanpoko idazleari eta literaturari muga-zerga ordainaraziz. Gauza bertsua esan daiteke eremu urriko hizkuntzetakook gaztelaniaz argitaratu eta ohiko gaztelaniazko merkatuan konpetentzian hasten garen bakoitzean.

Dena dela, bide hori (hainbat argitaletxe txiki elkartu eta euren ekoizpenak eremu zabalagoan hedatzen saiatzea) behin baino gehiagotan jorratu izan da. Joxan partaide izan zen bide horietan egindako hainbat saio seriotan. Horietako batean, **Argitaletxe elkartuak** sortu zen (Editores asociados, Editors associates, Editores asociaos, Editors asociados) eremu urriko hainbat hizkuntzatan (gailegoa, katalana, asturiera, aragoiera...) eta gaztelaniaz liburuak argitaratzeko.

Argitaletxe horren babesean sortu zen 1996. urtean **Zazpi** saila. **Argitaletxe elkartuek** argitaratzen zuten gaztelaniaz eta leku-ko argitaletxe bakoitzak bere hizkuntzan. Esperimentuak 1999. urtera arte iraun zuen. Sail horretan badira hamasei liburu Joxanek itzuliak.

Bestalde, indar batu horiei etekina atera nahiz, Apirila saria antolatu zen, eta baita **Eta zer?** saila ere, Joxanek bereziki atsegin

zuena. Desberdina izateko eskubidea agertzeko antolatutako saila zen. Itzulpen-lanetan ere aritu zen sail horretan: *Nire aita etxeoandrea da, eta zer?* (2000), *Potoloa naiz, eta zer?* (2000) eta *Horrelakoa da nire arreba, eta zer?* (2001).

Elkarrekin lan egiteak ez zuen baztertzen, ordea, bestelako hainbat bitxikeriatan aritzea gure Joxan. Noizbehinka bazuen bereziki “bere” sumatzen zuen libururen bat, edo egileren bat. Horrelakoetan, lan hori bere hegalean hartu ohi zuen, eta esku artean zituen beste hainbat lanen artean gustu hutsez itzultzen zuen. Hemen kasu batzuk:

Miru sail euskaldunean *Zainorilandia* itzuli zion Julia Otxoari 1997. urtean eta *Ni eta nire metroa* Amado Gómez Ugarteri 1999an.

Lamia sail euskaldunerako *Mister Daf-fodil eta bere denda* Axun Balzolari 2001. urtean.

Batela sailerako *Punpuiluaren bidaiak* Pako Sagarazuri 2007an.

7

2000. urtetik aurrera, denbora-pasak eta jokoak itzultzeko gai bihurtu ziren Joxanentzat. Egia da beti izan zituela gustukoak bai hitz-jokoak eta baita bestelako denbora-pasak ere (matematikoak, logikoak, irudizkoak...), baina azken hamar urteetan arreta berezia jarri zuen horrelako materialetan.

Era horretako material mordo bat du itzulia Joxanek:

a) **Ipuin klasikoetako denbora-pasak** (Tarttalo, 2000), 6 liburuxka.

b) **Totoren denbora-pasak** (Tarttalo, 2000), 4 liburuxka.

c) **Erantsi, margotu eta idatzi** (Tarttalo, 2000), 4 liburuxka.

d) **Eranskailu mugikorrekina...** (Tarttalo, 2000), 4 liburuxka.

e) **Jolastu eta margotu** (Tarttalo, 2000), 4 liburuxka.

f) **Nire jolas liburuak** (Tarttalo, 2000), 4 liburuxka.

g) **Tabi denbora-pasak** (Tarttalo, 2004), 4 liburuxka.

h) **Lehen hezkuntza. 1/2 ikasturteak. Ikusmen, logika eta orientazio jokoak** (Elkar, 2004), 8 liburuxka.

Jolas horiez gain, badira garai bertsuan Ormazabalek egindako liburu txikien itzulpenak. Tarttalon argitaratuak 1999. urtetik aurrerakoak dira, neurri handi batean. Ikusi hauek:

a) **Goazen barrura** saila (Tarttalo, 1999), 4 liburu.

b) **Urrezko ipuinak** saila (Tarttalo, 2000), 8 liburu.

c) **Mozorroka** saila (Tarttalo, 2000), 4 liburuxka.

d) **Nire lehen liburua koloretan** saila (Tarttalo, 2000), 4 liburu.

e) **Nire superliburua** saila (Tarttalo, 2000), 4 liburu.

f) **Animalia dibertigarriak** saila (Tarttalo, 2002), 4 liburu.

g) **Ireki** saila (Tarttalo, 2003), 2 liburu.

h) **Sirenatxoak** saila (Tarttalo, 2006-7), 3 liburu.

i) **Irudi biziak** saila (Tarttalo, 2007), 4 liburu.

8

Haur eta gazte literaturaren mundutxo txikian albumek garrantzi berezia hartu dute azken aldian, eta gure artean (haurren literaturako mundu txiki horretako euskal txoko txikian) ere bai. Zenbait, nire irudiz, halakoei neurritz kanpoko garrantzia ematen aritu bada ere, agian, ezin ukatu azken urteotako liburu-erreginak bilakatu direla.

Album bat egiteaz gain, 2002. urte-tik aurrera Joxanek hainbat album itzuli zituen:

- *Beti aurrera*, Tarttalo, 2002.
- *Denak du konponbidea*, Tarttalo, 2002.
- *Erraldoia eta txoriak*, Tarttalo, 2003.
- *Dortokaren sekretua*, Tarttalo, 2004.
- *Sagu txikia*, Tarttalo, 2004.
- *Munstro bat ohe azpian*, Tarttalo, 2005.
- *Hotsen liburua*, Tarttalo, 2006.

9

Haur eta gazteen literaturaren inguru-neari arreta pittin bat jartzen saiatuz, Joxan Ormazabalen itzulpengintza-lana aztertzen ahalegindu naiz, uste baitut (sortze-lanak inoiz ahaztu gabe) itzulpengintzaren arloan lan itzela egindako gizona dela.

Txiki edo handi, lauhun liburutik gora itzuliak ditu, eta 1980. urte inguruan hasita hogeita hamar urteko etengabeko jarduera du.

Zerbait galtzen dugunean hasten omen zaigu hartaz genuen estimua indartzen, eta badirudi oraingoan ere hala izan beharko duela: Joxan galdu dugunean ikusten dugu hark egindako lanaren tamaina eta balioa.

Sit tibi terra levis.

Izan bekizu arina lurra, adiskide.

Joxan Ormazabal y la traducción

Se nos ha ido Joxan Ormazabal, y con él hemos perdido, además de un autor de literatura infantil y juvenil, un traductor excepcional en ese campo.

La traducción de libros, álbumes, cuadernos de pasatiempos, textos de conocimiento del medio, pequeños libros sobre la naturaleza y los animales, cómics... así lo avalan. Tradujo más de cuatrocientas obras en total.

La preocupación de Joxan Ormazabal de utilizar un lenguaje comunicativo y un euskara cercano al registro oral fue constante. Su lema era: una traducción fiel pero con cuerpo y alma.

Ahora que nos has dejado, notamos más que nunca tu falta, Joxan.

Joxan Ormazabal and translation

We have lost Joxan Ormazabal, and with this loss we have missed out on an author of children's and young adults' literature, as well as an exceptional translator in this field.

The translation of books, albums, puzzle books, social and natural science text books, small books on nature and animals, comics... answers for his work. He translated more than four hundred works in total.

The concern of Joxan Ormazabal for the use of a communicative language and a Basque language close to the spoken register was permanent. His motto was: a precise translation but with body and soul.

Now that you have left us, we miss you more than ever, Joxan.

Joxan Ormazabal et la traduction

Joxan Ormazabal nous a quittés ; avec lui, nous avons perdu, en plus d'un auteur de littérature jeunesse, un traducteur exceptionnel dans ce domaine.

En témoignent ses traductions de livres, d'albums, de cahiers de jeux, de textes de découverte de l'environnement, de petits livres sur la nature et les animaux, de bandes dessinées... Il était l'auteur de plus de quatre cents traductions au total.

Joxan Ormazabal a fait preuve d'un souci permanent d'utiliser un langage communicatif et un euskara proche du registre oral. Il avait pour slogan « une traduction fidèle mais dotée de corps et d'âme ».

Depuis ton départ, nous ressentons cruellement le vide que tu as laissé, Joxan.